

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure aplikazioaren arrakasta modu eraginkorrean kudeatu behar diren hainbat baliabideren mende dago. Horien artean daude giza baliabideak, baliabide teknologikoak eta finantza-baliabideak.




Alde batetik, giza baliabideak funtsezkoak dira aplikazioa ondo garatu ahal izateko; horregatik, langileok (kasu honetan guk) beharrezko trebetasunak eskuratu behar ditugu eskatutako funtzioak bete ahal izateko; esaterako, hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea eta teknologia berriak erabiltzen jakitea. Gainera, lan-giro ona sortu behar dugu, lan egiteko orduan produktiboak izateko. Hori lortzeko, funtsezkoa da langileak aitortzea eta saritzea, eta enplegatuek seguru sentituko diren giroa sustatzea, beren ideiak eta iritziak beldurrik gabe adierazteko.

Bestalde, baliabide teknologikoak ere beharrezkoak dira, horiek gabe ezingo baikenuke lanik egin. Ordenagailuak, tabletak, zerbitzariak eta tresna digitalak gure ekipoaren parte dira. Gainera, konektibitate segurua (wifi) bermatzeak berebiziko garrantzia du eragiketa komertzialetarako.

Azken baliabide gisa finantzarioa dugu, hau da, hasierako kapital bat behar dugu proiektua kasu honetan aplikazioa abiarazi eta garatu ahal izateko. Gainera, aurrekontu bat sortu dugu gastu guztiak kontrolatzeko eta diru-sarrerak maximizatzeko (gastuak izan daitezke: zergak, alokairua, soldatak, aplikazioan deskarga edo iragarki bakoitzeko irabazia izango dugu).

Gure lehiakide nagusien artean nabarmentzen dugun baliabidea ez da intelektuala ez baita patente gisa eros daitekeen zerbait, aplikazio berri bat sortu ahal izan dugulako zerotik, deskargatzen duten erabiltzaileentzat abantaila askorekin.



Funtsezko baliabideak hauek izango dira:

- ◆ **Fisikoak** (materiala, lantokia...) →Gure lana egiteko lantoki bat behar dugu, gure kasuan, Txurdinaga-Santutxun alokatu dugun bulegoa. Aplikazioa zabaltzen bada, hainbat bulego irekiko ditugu, bai nazio-mailan (Madril edo Bartzelona), bai nazioarteko mailan (Europar Batasuneko herrialdeetan).

- ◆ **Intelektualak edo giza baliabideak**(langileen ezagutzak, langileen esperientzia, gure enpresak dauka patentea...) →Aplikazioa hainbat hizkuntzatan egongo denez eskuragarria, langileok (guk) hainbat hizkuntza jakin behar ditugu (euskara, gaztelania, ingelesa...). Gainera, gutariko batzuk antzerako lan esperientzia bat izan dugu aurretik, beste enpresa batzuetan lan egin dugulako gurea ireki aurretik. Bestalde, patente bat sortzea gustatuko litzaiguke, beste enpresa batzuek ez diezaguten kopiatu aplikazio honen ideia.Sortzea gustatuko litzaigukeen patentea baterako gure aplikazioa



da, beste enpresa batzuek ezin izan dezaten gure jarduera egin, non eta ez duten hura diruaren truke erosten edo alokatzen.

- ◆ **Finantza baliabideak:** (Baliabide propioak, kanpo finantzaketa (maileguak epe luzera edo laburrera...) →Hasiera batean aplikazioa eta gure enpresa ireki ahal izateko, gure aurrezki guztiak bateratu ditugu gastuei aurre egin ahal izateko (adibidez, bulegoaren alokairua). Hala ere, pentsatu dugu aplikazioak gero eta erabiltzaile gehiago dituenean, bankuari mailegu bat eskatzea inbertsio gehiago egiteko, eragiketak hedatzeko, langile gaitu gehiago kontratatuzko edo zerbitzu berriak garatzeko.